

Jaungoiko - Zale'ren Idaztijak

Sebastian Deunaren

==== Bederatziurrena ====



1918

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zoñotza.—(Bizkaya)

ATV

27032



58272
59036

ATV
27032

Jaungoiko - Zale'ren Idaztijak

Sebastian Deunaren

==== Bederatziurrena ====



1918

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zofnotza.—(Bizkaya)

Handwritten text at the top of the page, possibly a title or author's name, appearing as "Handwritten text - Author's Name".


Handwritten text in the middle of the page, possibly a title or author's name, appearing as "Handwritten text - Author's Name".

Handwritten text below the middle section, appearing as "Handwritten text - Author's Name".



BIAR DAN BAIMENAZ





Sebastian Deunaren

Bederatziurrena

Gurutza deunaren...

MAITE* - DAMUZKO OTOYA

¡Neure Jesu-Kisto Jauna, egizko Jaun-Goiko ta Gizona, neure Aita maitati ori ta neure gogo-Eroslea! pekataria galtzerik eztozu nai, Zeugana biurtu ta donetu dedilla baño: Zeure oñetan auspez, neure oben eta gaiztakeri gustien parkamena eskatzen dautzut. Biotz-biotzez damu naz Zeu zaran on utsa iraindu zaitudalako, ta gauza gustiak baño maitiago zaitudalako, erabagi sendoa artzen dot aurrerantzian obenik ez egiteko, ta oben eta gaiztakeri-bide gustietatik iges egiteko

Neure bizitza, egiñen eta neke gustiak neure oben-ordez eskintzen dautzudaz,

ta zeu on-ona ta errukiorra zaralako, uste dot, eskatzen dautzudan lez, parkatuko deustazuzala Zeure odol eder, Nekaldi ta Eriotzarren, Zeure Ama Sortzez Garbierren, eta Zeure maitale ta ziñopa edo martiri Sebastian zoruntsuaren irabaziakaitik: emongo daustazuzala zeure laguntza ta eskarra autorkuntza on-bidez neure gogoa garbitu ta azkeneraño Zeuri jarraitzeko. Olantxe.

EGUNEROKO OTOYA

Jesus errukiorra, neure Gaizkatzalle edo Salbagille, Erosle ta Bitartekoa, zeruko aldun gustien Buru, Jaun gustien Jaun eta ludi onetako izate gustien Jabe bakarra: Zeu zara zuzendasun utsa: Zeu zara Deuna ta zeuretzat uakeratuak donetuten dozuzana. Zeuk donetu ta eskar ta emaitzez apaindu zenduan zeure ziñopa edo martiri sendoa, ta geure zaintzalle bikaña, Sebastian zoruntsua: Zeuk aukeratu zendun eri, gexo ta ixurri mueta gustietan geure aldekotzat. Eskarrak,

Jauna, emoten dautzuguz biotz-biotzez, to gogo-gogotik eskatzen dautzugu, Sebastian deunaren bidez, gogo ta gorputzeko gexo ta ixurri gustietatik zaindu gaizuzala: zeure maitetasunian ludi onetan bizi ta betiko zoruna lortu dagigun. — Olantxe.

(Emen iru Aita Gure ta iru Agur Maria).

Lenengo Eguna

Sebastian deunari Otoya

BERE ZIÑISTEA

¡Sebastian zoruntsua! Jaungoikoak autetsi zinduzan ziñestearen argi izpitsuaz eta Jesu-Kisto'ren irakaskixun osasungarriakaz gizonen gogoak argitaltzeko: Jesu-Kisto'ren ziñeskayak eta bere irakatsi gustiak, itzez, egitez eta mirari edo alatzetz zabaldu zenduzan: apal-apalik eskatzen dautzut ba, Jaun gustialdunagandik jaritxi dagidazula siñizte bizia, ludi onetako ogasunai neure biotza ezarri ez dagi-

oedan: neure etsai ta girna ta zalekeri gaiztoak garaitu dagidazan, eta zeure bitartez zoritxar gustietarako Jaungoikoa-aren laguntza ta Bederatziurren onetan eskatzen dautzudan eskarra, Jauna'ren aintzarako ta neure gogoaren onerako izango ba'da lortu dagidan. Olantxe.

Gogoratu deunaren ziñistea, ta eskatu bederatziurren onetan lortu gura dozuna.

MARIA JAUNGOIKOA'REN AMA'RI EGUNEROKO

OTOYA

¡O Maria Sortzez Garbia! Zeu zara atsekabetuen atsegiña, zeruko Andereia, gizonen Ama, pekatarien bitartekoa, zeru lurreko ogasunen zabaltzallea: zeu izate gustietatik ederrena, lirañena, samurrena, gozoena, maitegarriena. Zeu Irukoitz-Deuna'ren kutuna: Aita Goiko'aren Alaba, Seme-Jainko'aren Ama, Goteuna'ren maitia. Biotz-biotzez gurtu ta goraltzen ditut Jauna'k zeure Sortze garbiyan egin eutzuzan eskar eta bere biziko emaitzak,

eta auspez apal-apalik jarrita, eskatzen deutzut, Jauna'gandik pekatu gustien parkamena ta gaiztakeriaganako gorroto bizia jaretxi dagistazula: baita Jaungoikoaren maitasuna ta bide zuzenari jarraitzeko indarra ta sendotasuna be: bederatziurren onetan eskatzen dodana Jauna'ren aintzarako, Zeure goraltzerako ta neure onerako izango ba-da. Olantxe.

Bigarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN DEUNAREN

ITXAROPENA TA JAUNGOIKO'ATZAZKO USTE BIZIA

¡Sebastian zoruntsua! Jaun altsuak jarri zaitu zoritxarrak eta ezbiarrak jo ta Bera-gan uste osoa ipinten dabenen bitarteko ta aldekotzat. Jaungoiko'agan uste osoa ipiñi dabunik iñor ez da galdu. Atsekabe ta zoritxarrik gorrienetan, zure bidez Jaungoiko'agana eldu diranak poza ta atsegiña aurkitu dabez. Iguzu arren ludi

onetako ogasun eta atsegiñai biotzik ez dayogula ezarri: ezperen, zeuk lez, Jaungoiko'agan geure itxaropen osoa jarri daigula, geure Aita'gandik lortu daigun ezbiar eta naibage gustietan Bere laguntza, pekatuen parkamena, egiñen on bidez betiko bizitza jaristeko indarra ta bederatziiurren onetan eskatzen dautzuguna Jauna'ren aintzarako ta geure onerako izango ba-da. Olantxe.

Irugarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN'EN JAUNGOIKO'AGANAKO MAITETASUNA

¡Sebastian zoruntsua! Jaungoiko'aren izena baster gustietan zabaldu ta gizon gustiei adierazteko gar bizia euki zenuan: Jauna'ri zeure biotza eskiñi zeuntzan eta etsayen indar eta alegiñak ez ziran naikoa izan Jauna'gandik zeure gogo au aldentzeko. Neke ta zigorrak, zeure azkenengo odol tantakia izuriteraño eroan

zenduzan, Jauna'ri zeuntson maitetasuna autortzeko. Jauna'ri egin zeuntson eskin-tza ta opalben bikañagaitik, biotz-biotzez eskatzen dautzut, Jaun errukiorragandik lortu dagidazula, Bera'ganako maitetasun sutsu ta gorria. Oin artean Jaungoiko'aren aizkide izateko galerazo dausten pekatu-atzazko gorroto ta damutasuna, Jauna'ren errukia goratu ta aintzaltzeko osasuna ta eskarra, ta eriotz onaren bidez amaituko ez diran aldietan Bera maitetuteko zori-ona. — Olantxe.

Laugarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN DEUNAREN

LAGUN - URKOAGANAKO MAITETASUN ETA ERRUKIA

¡Sebastian zoruntsua! Eskeko ta txiro-en aita, benetan gizon errukiorra ta biotz-peria. Errukiak ez eban iñoiz zure biotza itxi. Negar eta ezbiar gustietan lagun urkoari lagundu zeuntson. Atsekabetuak

atsegindu ta naigabetuak poztutearren zeure bizia emon zendun. Jaritxi egidazu Jauna'gandik neure lagun-urkoaren benetako errukia: Etsyai parkatu, eskeko ta txiroak urgaztu, gexoak zaindu, irañak aitzu ta beste maitetasun eta errukizko jardun gustiak pozik egiteko eskarra, azken-epaikaldian Epaikaria'gandik itz-eder oneixek entzun daidazan: *Erduze neure Aita'k onetsiak, munduaren asieratik zeuentzat gertauta dagozan zorion atsegiñetara*. Baita bederatziurren onetan eskatzen dodan eskarra Jauna'ren aintzarako ta neure onerako izango bada. — Olantxe.

Boskarren Eguna

(*Lenengo egunean lez*).

SEBASTIAN DEUNAREN ZURTASUNA

¡Sebastian zoruntsua! Zurra benetan izan ziñan sugia lez ta zindoa ta tolesgabia usoa lez. Zurra ziñalako zeure ogasu-

nak eskekøen artean zabaldu zenduzan betiko ogasunak irabazteko: zurra ziñalako, gudari - soñekopean estaldu zendun Jesu-Kisto'ren aldez odola ixuriteko zeunkan egarria, zurra ziñalako, ain zietz ta zintzo egin zenduzan nagosiyaren agintza ta onuak. Iguzu arren Jesu-Kisto'ren agintza ta onuen arauz biziteko eskarra: geure egiñen ta jardun gustiak betiko zoriona jaristera zuzentzeko laguntasuna: argiro ikusi daigula gauza bat bakarra dala guretzako biar-biarrekoa, geure arima gaizkatztea, ta ajolarik garçsuenagaz jardun gaitetzala gauza bakar biar-biarreko au lortuten: baita bederatziurren onetan eskatzen dautzugun eskarra be, Jaungoiko'aren aintzarako ta geure onerako izango bada. — Olantxe.

Seigarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN DEUNAREN ZUZENDASUNA

¡Sebastian zĩnopa edo martiri zorunt-
tsua! Jaungoiko-legearen eduz bide zuzenari jarraitzeko ardura bizia izan zendun. Zeure naya Jaungoiko'aren nayaz bat eginda zeunkan: Jaungoikoa'k nai ebana baño besterik ez zendun nai. Zeure biotzeko girna ta zaletasun gustiak azpiratu, ezi ta besau zinduzan, Jaungoiko'aren eta bere ordezkoen agintzak artez egiteko. Iguzu arren guk be gure biotzeko girna ta lera okerrak ezi ta Jaungoiko'ak bere legian agintzen dauskun lez artez ibilli gaitezala. Gure bizitzako aukera ta jardun gustietan, geure naya Jaungoiko'aren nayaz bat egin daigula. Ludi onetan bakoxtari beria ta Jaungoiko'ari ta lagun urkoari eurai dagokioena, ta geure buruari beroni dagokiona emon dayogun, eta epaikari zuzenagandik betiko zoriona

saritzat jaritxi daigun; baita bederatzi-
urren onetan eskatzen dautzudana be,
Jaungoiko'aren aintzarako ta neure onera-
ko izango ba-da. Olantxe.

Saspigarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN'EN SENDOTASUNA

¡Jesu-Kisto'ren jarraitzalle adoretsooi!
Jauna'ren Gurutzea ain samurkiro maite
izan zendun eta neke eta zigorrik gogo-
rrenak ain kementsu eroan zenduzan
Jesu-Kisto'ren ziñiztea gizonen aurrean
autortutzearren: espetxe edo kartzela illu-
nak, samintasunik garratzenak ez eutzuen
atzera eragin. Apal-apalik eskatzen dau-
tzut Jaungoiko'aren naya, naiz ta latza
izan, eragozpen gustiak goituta egiteko
adore ta gogo ona. Nire gogoa zeurea
lez beti gertu egon dedilla, Jesu-Kisto'ren
ziñizte ta irakaskintzak, gizonen aurrean
autortu ta bere aldez nekerik samiñenak

kementsu eroateko: baita bederatziurren onetan eskatzen dautzudan eskarra be. Jaungoiko'aren aintzarako ta neure onerako izango ba-da. Olantxe.

Zortzigarren Eguna

(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN'EN OTOI - ZALETASUNA

¡Jauna'gandik otoi-bidez eskarrik bikañenak eta ugarienak jaritxi zenduzan Deun zoruntsua! Otoi-bidez ain garbi ta zindo iraun zendun zeure inguru gustiak ustelduta egonarren: otoi-bidez Jauna'gandik jaritxi zendun beraganako maitetasuna, gaiztakeriatzazko gorrotua, Jesu-Kisto'ren ziñiztean irauteko sendotasuna, bere agintza egiteko indarra, Bere-aldez zeure odola ixuriteko adore ta kemena. Iguzu arren otoi-bidez Jauna'gaz itz-egiteko zaletasuna gogoz ta aboz, gabaz eta egunez, atsegin ta atsekabian, atsedean eta lanean, alde ta aldi gustietan; geure go-

goa Jauna'gana jaso ta geure itxaropen eta uste osoa Beragan jarri daigula, baita bederatziurren onetan eskatzen dautzugu-na be, Jauna'ren aintzarako ta geure one-rako izango ba-da. Olantxe.

Bederatzigarren Eguna


(Lenengo egunean lez).

SEBASTIAN'EN IRAUPENA

¡Jesu - Kisto'ren jarraitzalle azkarra, Sebastian zoruntsua! Ez munduaren gu-zurrezko eskintzak, ezta bere zemai ta zigor izugarriak be, ez eutzuen Jauna'gan-dik alde eragin, ezperen agintza ta zemai, onek geyago ta geyago Jauna'ganatu zinduezan: Jaungoiko'agan biziro ziñiztu zendun, Bera'gan sendaro itxaron zendun, Bera biotz-biotzez eta Bera'gan beste gau-za gustiak maite izan zenduzan. Bide zu-zen oni azkeneraño jarraitu zeuntson: bide onetatik aurkitu zendun oin donokian dau-kazun poza ta atsegiña iñoz amaituko ez-

tiranak. Ez gugaz aztu. Otoi egiozu gu-
re aldez Jauna'ri, zeuk erakutsi dausku-
zun bideari guk be jarraituteko eskar eta
laguntza ugari emon daiskun. Jaungoikoa
biotz-biotzez maitatu ta Bere naya zindo
ta zietz egin dagigun geure bizitzako egun
gustietan, ta gero zeugaz batera aintzatu
ta maitatu dagigun iñoz amaituko eztiran
egunetan. Olantxe.

A. M. D. G.



Bederatziurrenerako Abestijak

DEUN SEBASTEN ZIÑOPA
GARALLE ZORUNTSUBA
GAITZ IRANZKORRETATIK
ALDENDU GAGIXUZ BA.

I

Abestu daigun atsegiñez
Opaldurik Jauna'ri aintza
Geure Zaindari zoruntsuak
Diokleziano'ren aurka
Onen asmoak guzurtaurik
Irabaziriko garaitza.

II

Izanik bera Erroma'ko
Bakaldun jagolen nausija
Sebasten deunak ezetsiban
Anker aren asmo gustija
Ta betu eban berak, gogor
Izanik dardaraz josija.

III

Ludi ontako andikeri
Ta aukera danak ezetsi-ta
Ziñistearren aldez il zan
Lastasun artian ziñopa
Dardarakazko lora txorta
Josu Onari eutson opa.

IV

Gure Zaindari done orrek
Jagon egixu ba erri au
Ta Jainkuari errukija
Eskatu geutzat egun ta gau
Bijotz-bijotzez otoi auxe
Erri gustijak egiten dau.

